

Musika

Ez jaitsi MP3-rik!

Lasai, ez gara erotu, ez gara Frantzian deskargalariei konexioa gillotinatu nahi dien Hadopi legearen alde jarri; eta ez, guri ere ez zaigu gustatzen Espainiako Kultura ministro berriaren piratafobia. Baina, halere, MP3-rik ez jaisteko esan nahi dizugu. Ez bete zure disko gogorra saretik jaitsitako musikaz. Ez egin hori ze, badaude ordaindu gabe musika entzuteko modu on askoak.

GORKA BEREZIARTUA

SATAN, Lenin eta Ahmadinejad elkartuta baino gaiztoagoak ziren: beraien erruz ez ziren diskoak saltzen, gosez hiltzen ziren musikariak, industria gainbehera zihoan. MP3ez ari gara, eta formatu horretako artxiboak deskargatzen zituzten musika zaleez —betiere, zentimo bakarra ordaindu gabe—. Baina badirudi laster industriari aitzakia bukatuko zaiola; nagusitzen ari den joera *streaming* da. Hau da, musika Interneteko gune batetik zuzenean entzutea, inolako deskargarik egin gabe.

Geroz eta jarraitzaile gehiago dute musika taldeen Myspace-eko guneek eta Last.fm bezalako zerbitzuek; eta kontzeptu aldaketa garrantzitsua ekar dezakete musikaren kontsumoan. Zer-gatik? Salmentaren langa gainditu ondoren, orain jabetzarena gainditu dezaketelako entzuleek. Azal dezagun pixka bat. Talde baten kantak entzuteko aukera diferenteak dituzu: diskoa erosi, MP3a erosi, edo batere ordaindu gabe deskargatu —batzuek pirateria esaten dioten hori—. Azken aukerak izan du arrakasta gehien, eta nahiko finkatua dagoen ideia da aurrerantzean entzungo dugun musikaren zati handiena doan eskuratuko dugula. Baina hala ere, kanta *eduki* egin behar duzu, memorian espazioa okupatu; eta gainera, *eMuletik* jaitsi duzun zerbaitek zure ordenagailua infektatzeko arriskua dago... Batzuetan nekagarria izaten da, dena azkar lortzera ohituta dagoenarentzat.

Badira urte batzuk *streaming* bidez musika entzuteko aukera ematen zuten guneak abian jarri zirela, eta datuek gauza interesgarriak esaten dituzte. *The Guardian* egunkariak Britainia Handian egindako ikerketa baten berri eman zuen urtarrilean: Internet erabiltzaileen %24k horrelakoetara jotzen dute musika entzuteko. Eta gehienak gazteak dira. Egunkari berak Last.fm webguneiko Christian Ward-en adierazpenak jaso zituen: “Hasi ginenetik lan egin dugu inoiz egin den edozein musika pieza eskuragarri jartzeko, edonon zaudela ere, eta *iPhone*-arentzat sortu dugun aplikazioak lagundu digu helburu hori lortzetik gertu egoten. Milioika kanta izan

ditzaitezue eskura, nahiz eta hara eta hona ibili. *iPod*-ean berriz, artxibo kopuru mugatua eduki dezakezu: loriatutako walkman bat da, konparatzen jarritz gero”.

Hori ere aldatu egin baita: geroz eta errazago ikusten dituzu kalean haririk gabe Internetera konektatzeko aukera ematen duten gatzetak. Eta ordenagailu eramangarriek ere geroz eta eskurago dituzte Wi-Fi bidezko konexioak. Balantzaren beste aldean, egia da konexio horiek erdipurdikoak izaten direla sarri, eta askotan ez da egongo deskargatzea beste aukerarik. Baina eredu berria badator, biniloaren ondoren CDa etorri zen bezala.

Eta dirua? Nork ordainduko du hau guztia? Bada, Last.fm, Pandora eta Imeem bezalako zerbitzuek Interneten jartzen duten publizitatearekin lortzen dituzte sosak, entzulearen sakela bakean utzita. Akabo ordaintzea, eta akabo, beharbada, deskargak ere. Imajinatu eszena hemendik urte batzuetara; bi gazte kafetegi batean:

— Ez dakizu zer egin nuen aurrekoan: Animal Collective-en berria deskargatu! Edukitzeko kapritxo-eta...

— Puf, urteak hori egin gabe... Aizu, horko aitona hori ikusi? Discman bat daukala uste dut... ■



iPhone-ak eta tankerako gailuek aukera berriak zabaldu dituzte musika zuzenean Internetetik entzuteko, nonahi zaudela ere.

